

→ Ekitaldiak

Zure ekitaldia BERRIAN agertzea nahi baduzu: www.berria.info/zarbitzuak/agenda/bidal/

Musika

- **Barakaldo.** Rise of the Northstar eta Alerta. Gaur, 20:00etan, Edaska aretoan.
- **Bilbo.** La Maravillosa Orquesta del Alcohol. Gaur, 19:00etan, Fnac saltokian.
- **Bilbo.** *Euskal Kantu Liriko Berrak* emanaldia. Gaur, 20:00etan, Arriaga antzokian.
- **Bilbo.** Bilboko Udal Txistulari Bandaren kontzertua. Gaur, bihar eta ostiralean, 20:00etan, Euskalduna jauregian.
- **Bilbo.** Marinah y los Argonautas. Bihar, 21:00etan, Kafe Antzokian.
- **Gasteiz.** Izaki Gardenak taldearen kontzertua. Gaur, 19:00etan, Unibertsitate pabiloian.
- **Hondarribia.** Yacine & The Oriental Groove. Bihar, 20:30ean, Banakon.
- **Zarautz.** Rafa Rueda: *Enaren geometria*. Bihar, 21:30ean, Euskalduna tabernan.
- **Zumaya.** Donostiako Francisco Escudero eta Erretereria Musikal Kontserbatorioetako ikaslearen kontzertua. XII. klarinete maratolaren barnean. Gaur, 19:00etan, komentuan.

Antzerkia

- **Durango.** *Inungane, sustraiak airean*, Karrika antzerki taldearekin. Bihar eta etz, 20:00etan, San Agustín kulturgunean.

Bertsolaritza

- **Gasteiz.** Txapelketa Nagusia giotzeko, bertso saio didaktikoa, Ruben Sanchezekin. Gaur, 10:00etan, Zadorra AEK eskualtean. Bihar, ordu berean, Arana AEK eskualtean.
- **Gernika-Lumo.** Bertsolari Txapelketa Nagusiaren inguruko saio didaktikoa, Xabi Payaren eskutik. Gaur, 19:30ean, kultur etxean.
- **Irun.** *Ostegunetako Bertsogauak*. Bertsolariak: Aimar Karrika, Odei Barroso, Gotzon Alzpiolea eta Maddi Ane Txopereña. Bihar, 19:30ean, Kabigorri ostatuan.
- **Iruñea.** *Bertsoroa*. Bertsolariak: Nerea Ibarzabal, Amalia Iturrizotz, Irati Majuelo, Maddi Sarasua Laskarai, Egoitz Gorosterraza eta Mikel Lasarte. Gai-jartzailea: Joseba Andoni Beltraza. Bihar, 20:00etan, Gurutze plazako institutuaren.
- **Murgia.** Txapelketa nagusia giotzeko egitaraua. *Bertsolari* filmaren emanaldia. Bihar, 19:00etan, udaletxeko aretoan.
- **Villabona.** Munduko Kantu Inprobisatuaren Jardunaldiak, Mintzolan. Bertol Arrieta eta Manex Agirrezabalen hitzaldia. Gaur, 19:00etan, Subijana etxean.

■ **Zuia.** Txapelketa nagusia giotzeko egitaraua. *Bertsolari* filma. Bihar, 19:00etan, udaletxeko aretoan.

Dantza

- **Donostia.** *Bilgu*, kontzertu-erromeria, Alko taldearekin. Gaur, 20:00etan, Euskalduna jauregian.
- **Donostia.** *Azuleak XVIII. Bihar*, 21:00etan, Viktoria Eugenia antzokian.

Hitzaldiak

- **Aretxabaleta.** *GKE n espereintzia trukaketa*. Bihar, 18:00etan, Arkupen.
- **Bilbo.** *Florence Nightingale, erizaina eta estatista*, Txaro Uriarte eta Arantza Urkaregiren eskutik. Emakume zientzialarien hitzaldi zikloaren barnean. Bihar, 19:30ean, Bidebarrietako Liburutegiko ekitaldi aretoan.
- **Donostia.** *Umorez eta baikor bizitzearen poza eta esker ona*. Gaur, 18:00etan, Intxaurrondo kultur etxea.
- **Erretereria.** Arcadi Oliveres Ekonomian Katedradunak erabakitzeko eskubidearen gaineko hitzaldia emango du, ekonomia-aren ikuspegitik. Gaur, 19:00etan, Kaputxinoetako elizako hitzaldi aretoan.
- **Gasteiz.** *Dos caras de la misma moneda: castellano y euskara*, Karnele Jaio eta Mikel Valverdeekin. Badu, Badaren harira. Gaur, 19:30ean, Ignacio Aldekoa kultur gunean.
- **Getxo.** *Legion Condorrek eragindako Gernikaren suntsipena* erakusketaren inguruko hitzaldia, bonbardaketan izandako pertsonen solasaldia eta 20 minutuko dokumentala. Bihar, 19:00etan, Ablan kultur elkarterko beheko aretoan. Algortan.
- **Irun.** AHTaren aurkako tarta jaurtitzaleen hitzaldia. Gaur, 19:00etan, Irungo Herrikoan.
- **Iruñea.** *El repunte del hambre: La crisis alimentaria en el marco de la globalización*. Karlos Perez de Armiñoren hitzaldia. Bihar, 19:30ean, Hormiga Atomika liburu dendan.
- **Leioa.** *Viviendo Africa*, Bio fundazioarekin. Gaur, 12:00etan, EHUKo Zientzia eta Teknologia Fakultatean.
- **Sestao.** *Juicio a la transición: Protagonistas, evaluación y alternativas*: hitzaldia eta eztabaida. Bihar, 19:00etan, musika eskolako areto nagusian.

■ **Getxo.** *Legion Condorrek eragindako Gernikaren suntsipena* erakusketaren inguruko hitzaldia, bonbardaketan izandako pertsonen solasaldia eta 20 minutuko dokumentala. Bihar, 19:00etan, Ablan kultur elkarterko beheko aretoan. Algortan.

■ **Irun.** AHTaren aurkako tarta jaurtitzaleen hitzaldia. Gaur, 19:00etan, Irungo Herrikoan.

■ **Iruñea.** *El repunte del hambre: La crisis alimentaria en el marco de la globalización*. Karlos Perez de Armiñoren hitzaldia. Bihar, 19:30ean, Hormiga Atomika liburu dendan.

■ **Leioa.** *Viviendo Africa*, Bio fundazioarekin. Gaur, 12:00etan, EHUKo Zientzia eta Teknologia Fakultatean.

■ **Sestao.** *Juicio a la transición: Protagonistas, evaluación y alternativas*: hitzaldia eta eztabaida. Bihar, 19:00etan, musika eskolako areto nagusian.

- **Bilbo.** *Nekazarien borroakak, biodibertsitatea, lurraldea eta elikadura burujabetza* dokumental zikloa: *El plat o la vida* dokumentala. Gaur, 19:30ean, Bilborocken.

■ **Bilbo.** *Nekazarien borroakak, biodibertsitatea, lurraldea eta elikadura burujabetza* dokumental zikloa: *El plat o la vida* dokumentala. Gaur, 19:30ean, Bilborocken.

«Agenda



Ikusleak dantzan jartzea eta aritu bitartean irakastea dira Alko taldearen helburuak. BERRIA

Pirinioetako erromeria, Bilbon

Musika eta dantza ekitaldi parte-hartzailea egingo du Aiko taldeak, 'Bilgua' azken diskoa aurkezteko

Erredakzioa

Kontzertua, baina ez soilik aditzeko. Ikusleek aukera izango dute jauziak, jotak, mazurkak eta zortzikoak dantzatzeko, besteak beste, Aiko taldearen zuzeneko musikarekin. Pirinioetako artzainen erromerian doinuak joko ditu taldeak, *Bilgua* diskoa aurkezteko.

Musika-dantza emanaldia doan da.

Artzainek, antzina, mendian suaren inguruan biltzen zireneko giroa berriz piztu nahi dute musikariok. Aiko kultur elkarte bat da, ez soilik musikari taldea. Hara eta hona ibiltzen dira garai bateko musika eta dantzak berreskuratzeko. Baina ohiko dantza ikusizumetan ez bezala, ikusleak eserlekuetatik atera eta dantzan jartzen dituzte.

Tuntuna, biolina eta danborra erabiltzen dituzte orain. Halako konfigurazio txikiarekin, 20 musika pieza grabatu dituzte diskorako. Esan dutenez, emaitza «xu-

mea eta konplexurik gabekoa, baina, era berean, indartsua eta berritzailea belarri modernoentzat». *Bilgua* Aiko taldearen zortzigarren diskoa da. Dantzak irakasteko bide zuzena du taldeak: dantza maisuen bidez, urratsak irakasten dizkie parte hartzaileei, horiek dantza egiten duten bitartean. Jon Maia, Larraitx Arretxe, Patxi Laborda eta Vanesa Castaño aritzen dira irakasle lanetan.

MUSIKA-DANTZA

- **Noiz.** Gaur, 20:00etan.
- **Non.** Euskalduna jauregian, Bilbon.

Burujabetzaren diruak

Arcadi Oliveres ekonomialari katalana erabakitzeko eskubidearen inguruan arituko da Erretererian

Erredakzioa

Katalunia eta erabakitzeko eskubideari buruzko hitzaldi sorta antolatuko du Erretereriako Batera Bai elkarteak (Gipuzkoa). Gaur, Arcadi Oliveres ekonomialari eta gizarte ekintzailea arituko da hitz egiten erabakitzeko eskubidearen alde ekonomikoaren inguruan. Hurrengo hitzaldian, Kataluniako PSC alderdiko kide izandako Ernest Maragall mintzatuko da.

Oliveres Ekonomian katedraduna da, eta kristau mugimendu progresistan egin du lan, besteak beste, bakearen alde eta armen negoziorekin kontra. Justicia i Pau elkartereko presidentea da, 1981. urtetik. Kataluniako haserretuen mugimenduko bultza-



Forcades eta Oliveres, Kataluniako Errepublikak sortzeko lanean. DALMAU/EFE

tzailletako bat da, eta, aurtten, Prozes Constituent erabakitzeko eskubidearen aldeko mugimendua sortu du Teresa Forcades mojarrekin. %99ren Errepublikak Katalunia eraiki dezagun leioarekin, lehen kampania abiatu du berriki mugimendua.

Argi utzi dute, hasieratik, mugimendua ez dela alderdi politiko bat eta ez dela izango. Mugimendua politikozozialtatu du bere burua, eta Katalunia «sakon» aldatu

nahi du, Oliveres eta Forcadesen kide Vicenç Navarrok adierazi duenez: «Espainiako Estatu hau ez da gure estatua, baina Katalunia hau ere ez dugu gustuko».

Xabier Oleaga kazetari eta Batera Baiok kideak gidatuko du Oliveresen elkarrizketa.

HITZALDIA

- **Noiz.** Gaur, 19:00etan.
- **Non.** Kaputxinoetako elizako hitzaldi aretoan, Erretererian.